2026/08

# GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO INKESTA

---

Dokumentu honek Gipuzkoako etorkizunari buruzko pertzepzioaren inguruan egindako inkestaren emaitzak aurkezten ditu. Inkesta soziometroa.etorkizunaeraikiz.eus webgunean egin da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza-plataforman.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA ..... 1
2. PARTE-HARTZEAREN ANALISIA ..... 3
3. EMAITZAK ..... 6
3.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA ..... 6
3.2 GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA ..... 10
4. JOERA NAGUSIAK BARRUTIEN ARTEAN ..... 30
4.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOAK ..... 31
4.2. GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA ..... 33
5. ONDORIO OROKORRAK ..... 35

# 01
# SARRERA

Txosten honen helburu nagusia da Gipuzkoako herritarrek lurraldearen etorkizunari buruz duten pertzepzioa aztertzea, datozen urteetarako identifikatzen dituzten erronka nagusiak ezagutzea, eta biztanleriaren bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko beharrezkotzat jotzen diren lehentasunak zehaztea.

Azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiaren soziometroa.etorkizunaeraikiz.eus herritarren partaidetzarako plataformaren bidez egindako inkesta baten emaitzetan oinarritzen da.

Soziometroa entzute aktiboko tresna bat da, lurraldeko gizarte, ekonomia eta kultura erronka desberdinei buruz herritarren iritziak biltzeko aukera ematen duena, errealitate sozialarekin konektatutako gobernantza parte-hartzaileagoa sustatuz.

Inkestak hainbat alderdi jorratzen ditu: hurrengo hamarkadan Gipuzkoak izango duen bilakaerari buruzko itxaropenak, lurraldeak etorkizuneko aldaketei aurre egiteko duen gaitasuna eta herritarren kezka nagusiak.

Era berean, biztanleriaren zahartzearekin, pentsioekin eta zaintzarekin, etxebizitza eskuratzeko aukerekin, enpleguarekin eta garapen ekonomikoarekin, zerbitzu publikoekin, gizarte-kohesioarekin eta komunitate-partaidetzarekin lotutako gaiak aztertzen ditu.

Halaber, ingurumenari, berrikuntzari, kultura-identitateari eta datozen belaunaldiei begira indartu beharko liratekeen lehentasunei buruzko pertzepzioak jasotzen dira.

Emaitzek joera esanguratsuak identifikatzeko aukera ematen dute, herritarrek Gipuzkoaren bilakaera nola irudikatzen duten eta 2035era begira zer erronka jotzen dituzten erabakigarrientzat ezagutzeko. Era berean, agerian uzten dituzte bai gaur egungo kezkak, bai lurraldeko ongizatea eta bizi-kalitatea zaintzeko funtsezkotzat jotzen diren alderdiak.

# 02
# PARTE-HARTZEAREN ANALISIA

Inkestan Gipuzkoan bizi diren **785 pertsonak parte hartu zuten**; horietatik, **523k galdetegia osorik bete zuten** (% 66,6), eta 262k (% 33,4) ez zuten inkesta osorik amaitu.

Hala ere, galdetegiak inkesta osorik bete ez arren galderen zati bati erantzun zioten pertsonen erantzunak jasotzeko aukera eman zuen. Hori dela eta, baliozko erantzunen kopurua aldatu egiten da galdera batetik bestera, eta, kasu batzuetan, osorik betetako galdetegien kopurua baino handiagoa izan daiteke. Ondorioz, txostenean zehar aurkezten diren ehunekoak galdera bakoitzean jasotako baliozko erantzunak oinarri hartuta kalkulatu dira.

Zehazki, bizileku den udalerriari buruzko galderari —barrutien araberako lurralde-analisia egiteko erabilitakoari— 529 parte-hartzailek erantzun zioten. Beraz, kopuru hori hartu da oinarritzat parte-hartzearen lurralde-banaketa eta barrutien arteko alde nagusiak aztertzeko.

Emaitzak interpretatzean, kontuan hartu behar da inkesta ez dela Gipuzkoako biztanleriaren egitura soziodemografikoa erreproduzitzera bideratutako laginketa-diseinu probabilistiko batean oinarritzen. Beraz, emaitzek parte-hartzaileen iritziak eta pertzepzioak islatzen dituzte, eta joera orokorrak, erantzun-ereduak nahiz taldeen eta lurraldeen arteko aldeak identifikatzeko aukera ematen dute; hala ere, ez dira Gipuzkoako biztanleria osoaren estatistikoki adierazgarriak diren zenbatespen gisa interpretatu behar.

Era berean, parte-hartzearen osaerak aldeak ditu bai lurraldearen ikuspegitik, bai ikuspegi soziodemografikotik. Horregatik, ezaugarri horiek bereziki hartu behar dira kontuan barrutien eta biztanleria-profilen arteko konparazioak interpretatzean.

**Barrutien araberako lurralde-banaketari dagokionez:**

- **Donostialdeak** izan zuen parte-hartze handiena: 240 pertsona, lurralde-analisirako jasotako 529 baliozko erantzunen % 45,4. Parte-hartzea Donostian bildu zen bereziki, 211 erantzunekin (barrutiko erantzunen % 87,9); ondoren, Hernani (17), Usurbil (5), Lasarte-Oria (4), Astigarraga (2) eta Urnieta (1) daude. Horrela, Donostialdeak lurralde-laginaren zati oso esanguratsua biltzen du, Gipuzkoako hiriburuak pisu bereziki nabarmena izanik.

- **Bidasoa-Oiartzunek** 100 parte-hartzaile izan zituen, hau da, lurralde-analisirako jasotako baliozko erantzunen % 18,9. Parte-hartzea Irunen bildu zen nagusiki, 48 erantzunekin (barrutiko erantzunen % 48,0); ondoren, Errenteria (18), Hondarribia (12), Pasaia (11), Oiartzun (9) eta Lezo (2) daude. Donostialdearekin alderatuta, banaketa orekatuagoa du udalerrien artean, nahiz eta Irunek barrutiko erantzunen ia erdiak biltzen dituen.

- **Deba-Urolak** 111 parte-hartzaile izan zituen, hau da, lurralde-analisirako jasotako 529 baliozko erantzunen % 21,0. Parte-hartzea nahiko banatuta dago udalerrien artean. Zarautz nabarmentzen da, 23 erantzunekin (barrutiko erantzunen % 20,7), eta Eibar, 22rekin (% 19,8); ondoren, Azpeitia (10), Arrasate eta Azkoitia (9na), Orio eta Oñati (6na), Bergara eta Elgoibar (4na) daude, baita ordezkaritza txikiagoa duten beste udalerri batzuk ere. Horrela, Deba-Urola da lurralde-laginean presentzia handiena duen bigarren barrutia, eta parte-hartze geografikoki dibertsifikatua du.

- Azkenik, **Oriak** 78 parte-hartzaile izan zituen, hau da, lurralde-analisirako jasotako baliozko erantzunen % 14,7. Parte-hartzea oso banatuta dago barrutiko udalerrien artean. Andoain eta Tolosa nabarmentzen dira, 13na erantzunekin (barrutiko erantzunen % 16,7na); ondoren, Abaltzisketa (12), Beasain eta Zumarraga (6na) eta Ordizia (5) daude, baita ordezkaritza txikiagoa duten beste udalerri batzuk ere. Horrela, Oria da lurralde-laginean pisu txikiena duen barrutia, nahiz eta hura osatzen duten udalerrien artean parte-hartzea bereziki dibertsifikatuta dagoen.

| Barrutia | Baliozko erantzunak | Lurralde-laginaren ehunekoa |
|---|---|---|
| **Donostialdea** | 240 | %45,4 |
| **Bidasoa-Oiartzun** | 100 | %18,9 |
| **Deba-Urola** | 111 | %21 |
| **Oria** | 78 | %14,7 |
| **Gipuzkoako totala** | **529** | **%100** |

# 03

# EMAITZAK

## 3.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOA

### ESKUALDEKAKO BANAKETA




Aurretik adierazi den bezala, lurralde-banaketari dagokionez, Donostialdeak biltzen du parte-hartze handiena: bizileku den udalerriari buruzko galderan jasotako 529 baliozko erantzunen % 45,4. Ondoren daude Deba-Urola (% 21,0), Bidasoa-Oiartzun (% 18,9) eta Oria (% 14,7).

Beraz, parte-hartzaileen banaketa ez da homogeneoa barrutien artean, eta Donostialdearen presentzia bereziki handia da. Alderdi hori kontuan hartu behar da emaitza orokorrak interpretatzean eta, bereziki, lurraldeen arteko konparazioak egitean.

Lan-egoerari dagokionez, erantzun duten pertsonen % 63,83 lanean ari da, eta % 25,76 erretiratuta dago. Langabeak % 4,55 dira; ikasleen presentzia, berriz, txikia da (% 0,76). Datu horiek erakusten dute lagina nagusiki landunen eta erretiratuen artean biltzen dela.

## EGOERA EKONOMIKOAREN ARABERAKO BANAKETA






Norberaren egoera ekonomikoaren balorazioa tarteko eta maila ertain-altuko puntuazioetan biltzen da nagusiki. Puntuaziorik ohikoenak 5 (% 25,33), 7 (% 22,50) eta 8 (% 21,74) dira; eskalaren muturretako balorazioek, berriz, pisu txikia dute. Oro har, emaitzek egoera ekonomikoaren pertzepzio nahiko positiboa erakusten dute, tarteko egoeren presentzia ere handia den arren.

Interpretazio hori ñabartu egiten da etxeen gaitasun ekonomikoa aztertzean. % 43,59k adierazi du hilaren amaierara arazorik gabe iristen dela, eta % 11,85 oso eroso iristen da; beraz, guztira, % 55,44 egoera ekonomiko nahiko erosoan dago. Aitzitik, % 28,87 hilaren amaierara ozta-ozta eta gastuak murriztuta iristen da, eta % 5,93 ez da iristeko gai. Oro har, erantzun duten pertsonen herenak baino gehiagok (% 34,80) hilaren amaierara iristeko nolabaiteko zailtasunak dituela adierazi du.

## ADIN-TARTEAREN ARABERAKO BANAKETA



Adinaren araberako banaketak tarteko eta adin handiagoko tarteetan kontzentrazio bereziki nabarmena erakusten du. Talderik ugariena 56 eta 65 urte bitartekoena da (% 36,50), eta, ondoren, 46 eta 55 urte bitartekoena (% 27,95). Guztira, 46 eta 65 urte bitarteko pertsonek laginaren % 64,45 osatzen dute. Aitzitik, belaunaldi gazteenen parte-hartzea nabarmen txikiagoa da: 36 urtetik beherakoak % 5,89 baino ez dira.

Laginaren profila kontuan hartu behar da emaitzak interpretatzean, bereziki 46 eta 65 urte bitarteko biztanleen presentzia handia eta belaunaldi gazteenen parte-hartze txikiagoa direla eta. Beraz, emaitzek parte-hartzaileen pertzepzioak islatzen dituzte, eta ez dira Gipuzkoako biztanleria osoaren egitura soziodemografikoaren erreprodukzio zehatz gisa interpretatu behar.

## HEZKUNTZA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA




Azkenik, ikasketa-mailari dagokionez, goi-mailako titulazioen presentzia handia nabarmentzen da. % 37,40k gradua edo lizentziatura du, % 14,00k masterra eta % 3,40k doktoregoa; beraz, % 54,80k unibertsitateko edo graduondoko ikasketak ditu. Horrez gain, % 25,60k Lanbide Heziketako ikasketak ditu. Hala, laginaren prestakuntza-maila ertain-altua da nagusiki.

## 3.2. GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA

### NOLA IKUSTEN DUZU GIPUZKOAKO ETORKIZUNA DATOZEN 10 URTEETAN?




Herritarrek Gipuzkoaren etorkizunari buruz duten pertzepzioak ikuspegi zatitua eta zuhurtziak markatutakoa erakusten du, itxaropen negatiboak zertxobait nagusitzen direlarik. Inkestatutako pertsonen % 38,61ek uste du datozen hamar urteetako bilakaera nahiko edo oso negatiboa izango dela; % 34,82k, berriz, nahiko edo oso modu positiboan ikusten du. Bestalde, % 26,57 tarteko jarreran kokatzen da, eta etorkizuna ez dela ez positiboa ez negatiboa izango uste du.

Beraz, emaitzek erakusten dute ez dagoela lurraldearen bilakaerari buruz argi eta garbi nagusitzen den itxaropenik. Hiru pertsonatik batek, gutxi gorabehera, aldeko ikuspegia badu ere, ikuspegi negatiboek pisu zertxobait handiagoa dute. Nabarmentzekoa da, halaber, jarrera moderatuenek biltzen dutela erantzun gehien; muturreko balorazioek —"oso positiboa" (% 5,63) eta "oso negatiboa" (% 10,21)—, berriz, ehuneko nabarmen txikiagoak dituzte.

Oro har, datuek itxaropen neurritsuek eta datorren hamarkadarekiko ziurgabetasunak ezaugarritutako agertokia erakusten dute, Gipuzkoaren etorkizunari buruzko pertzepzio argi eta garbi baikorra edo ezkorra baino gehiago.

## ZENBATERAINOKO KONFIANTZA DUZU GIPUZKOAK DATORREN HAMARKADAN GERTATUKO DIREN ALDAKETEI AURRE EGITEKO DUEN GAITASUNEAN?




Herritarrek Gipuzkoak datorren hamarkadako aldaketei aurre egiteko duen gaitasunean duten konfiantza tarteko mailetan kokatzen da nagusiki. Gehien hautatutako aukera konfiantza ertaina da (% 38,11), eta, ondoren, konfiantza handia (% 28,93). Muturreko jarrerek pisu nabarmen txikiagoa dute; bereziki, konfiantza oso handiak, erantzunen % 4,87 baino ez baitu biltzen.

Erantzunak multzokatuta, % 33,80k konfiantza handia edo oso handia adierazten du; % 28,09k, berriz, konfiantza txikia edo oso txikia. Beraz, balantzea konfiantzaren aldekoa da neurri txiki batean, nahiz eta bi taldeen arteko aldea neurritsua izan eta tarteko jarrerak nagusi izaten jarraitu.

Oro har, emaitzek erakusten dute herritarrek Gipuzkoari etorkizuneko eraldaketei aurre egiteko nolabaiteko gaitasuna aitortzen diotela, baina konfiantza hori ez dela bereziki sendoa. Pertzepzio hori bat dator aurreko galderan ikusitako itxaropenekin: ziurgabetasunak markatutako etorkizunaren aurrean, zuhurtziazko jarrera da nagusi; hala ere, lurraldearen erantzuteko gaitasunarekiko konfiantza Gipuzkoak izango duen bilakaerari buruzko balorazioa baino zertxobait positiboagoa da.

## DATOZEN URTEEI BEGIRA, ZEIN ALDERDIK KEZKATZEN ZAITU GEHIEN, ORO HAR? (AUKERATU GEHIENEZ 2 AUKERA)




Etxebizitza eskuratzeko aukera da, alde handiz, etorkizunari begirako kezka nagusia, parte-hartzaileen % 55,23k adierazi baitu. Ondoren datoz, nolabaiteko aldearekin, bizitzaren kostua (% 31,22), pentsio publikoen jasangarritasuna (% 29,60) eta zerbitzu publikoen kalitatea (% 29,16). Beste gai batzuek, hala nola klima-aldaketak (% 15,02), enpleguaren kalitateak (% 10,60) edo garapen teknologikoak (% 2,21), pisu txikiagoa dute.

Parte-hartzaileen % 9,43k hautatutako erantzun irekiek proposatutako aukeren artean jaso gabeko kezkak ere azaleratzen dituzte. Horien artean, behin eta berriz aipatzen dira herritarren segurtasuna eta delinkuentzia, immigrazioa eta euskararen nahiz kultura-identitatearen etorkizuna, beste gai zehatzago batzuekin batera. Oro har, emaitzek erakusten dute kezkak bizi-baldintza materialekin eta ongizateari eustearekin lotutako alderdietan biltzen direla nagusiki, etxebizitza izanik erronkarik nabarmenena.

## ZURE USTEZ, ZEINTZUK IZANGO DIRA DATORREN HAMARKADAN GIPUZKOAN ERAGIN HANDIENA IZANGO DUTEN ALDAKETAK? (AUKERATU GEHIENEZ 2 AUKERA)




Biztanleriaren zahartzea Gipuzkoaren etorkizuna baldintzatuko duen aldaketa nagusitzat jotzen da, parte-hartzaileen % 62,81ek adierazi baitu. Bigarren lekuan klima-aldaketa eta ingurumena daude (% 45,20); aurrerapen teknologikoek eta adimen artifizialak (% 21,00), ekonomia globalaren eraldaketek (% 20,11) eta lan-merkatuaren bilakaerak (% 18,86), berriz, antzeko ehunekoak dituzte.

Erantzun irekiek (% 7,83) diagnostiko hori osatzen dute, eta immigrazioarekin eta aldaketa demografikoekin lotutako gaiak jasotzen dituzte bereziki, baita etxebizitzari, segurtasunari, turismoari eta euskararen nahiz kultura-identitatearen babesari buruzko aipamenak ere. Oro har, emaitzen arabera, etorkizunaren pertzepzioa demografia- eta ingurumen-eraldaketa handiek markatzen dute nagusiki, teknologia-, ekonomia- eta gizarte-aldaketekin batera.

## ZEIN ALDERDI IRUDITZEN ZAIZU GARRANTZITSUENA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETORKIZUNEAN MANTENTZEKO?




Kalitatezko osasun publikoa da, alde handiz, biztanleriaren etorkizuneko ongizatea bermatzeko elementu nagusia, parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok adierazi baitu (% 52,80). Alde nabarmenarekin, etxebizitza egokia eskuratzeko aukera dago bigarren lekuan (% 25,13); kalitatezko enplegu egonkorrak (% 8,83), adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzak (% 6,79) eta etengabeko hezkuntza eta prestakuntzak (% 3,06), berriz, ehuneko txikiagoak lortu dituzte.

Erantzun irekietan (% 3,40), herritarren segurtasunari buruzko aipamenak agertzen dira nagusiki, baita euskararekin, soldatekin eta ongizatearen hainbat dimentsiori batera heltzeko beharrarekin lotutako gaiak ere. Oro har, emaitzek osasun publikoa indartzeari ematen zaion lehentasun argia erakusten dute; ondoren, etxebizitza dago, Gipuzkoako bizi-kalitateari eusteko funtsezko bigarren elementu gisa.

## NOLA BALORATZEN DUZU GAUR EGUN GIPUZKOAKO BIZI-KALITATEA?




Gipuzkoako bizi-kalitatearen balorazioa positiboa da gehienbat. Parte-hartzaileen % 58,71k ona edo oso ona dela uste du; % 33,45ek, berriz, hala-moduzkotzat jotzen du. Balorazio negatiboak gutxiengoa dira argi eta garbi: % 7,84k uste du bizi-kalitatea txarra edo oso txarra dela.

Oro har, emaitzek egungo egoeraren pertzepzio positiboa erakusten dute, nahiz eta tarteko balorazioen pisu handiak hobetzeko nolabaiteko tartea ere badagoela adierazten duen. Hala, etorkizunari buruz azaldutako kezkak gorabehera, parte hartu duten herritar gehienek positiboki baloratzen dute Gipuzkoako egungo bizi-kalitatea.

## ZEIN ELEMENTU IRUDITZEN ZAIZU GARRANTZITSUENA GIPUZKOAN GIZARTE-KOHESIOA ETA BIZIKIDETZA INDARTZEKO?




Etxebizitzarako sarbidea da Gipuzkoan gizarte-kohesioa eta bizikidetza indartzeko elementu nagusia, parte-hartzaileen % 29,49k adierazi baitu. Ondoren, enplegu duina eta egonkorra (% 25,08) eta aukera-berdintasuna (% 18,98) daude. Hurbileko zerbitzu publikoek (% 8,98), inklusiorako hezkuntzak eta prestakuntzak (% 7,46) eta komunitateko eta auzoko laguntza-sareek (% 6,78) pisu txikiagoa dute.

Erantzun irekietan (% 3,22), segurtasunari eta bizikidetzari buruzko aipamenak ageri dira nagusiki, baita euskarari eta beste faktore ekonomiko eta sozial batzuei buruzkoak ere. Oro har, emaitzek erakusten dute gizarte-kohesioa bereziki lotzen dela baldintza materialak eta aukerak bermatzearekin, eta etxebizitza eta enplegua direla bizikidetza sustatzeko bi zutabe nagusiak.

## ZENBATERAINOKO KONFIANTZA DUZU ETORKIZUNEKO BELAUNALDIEK PENTSIO SISTEMA JASANGARRI ETA NAHIKOA IZANGO DUTELA?




Emaitzek agerian uzten dute kezka handia dagoela pentsio-sistemaren etorkizuneko jasangarritasunari buruz. Parte-hartzaileen erdiek baino gehiagok (% 57,17) konfiantza gutxi dute edo ez dute inolako konfiantzarik etorkizuneko belaunaldiek pentsio jasangarri eta nahikoak izango dituztela; % 21,60k, aldiz, konfiantza nahikoa edo handia adierazi dute. Bestalde, % 21,23 tarteko jarrera batean kokatu dira.

Oro har, ziurgabetasuna eta mesfidantza dira nagusi pentsioen etorkizunari dagokionez, eta parte hartu duen herritarren itxaropenik negatiboenak biltzen dituen esparruetako bat da.

## ZEIN USTE DUZU IZANGO DELA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN ZAHARTZEAREKIN LOTUTAKO ERRONKA NAGUSIA?




Adinekoen zaintza da biztanleriaren zahartzeari lotutako erronka nagusia: % 33,87k etxeko eta egoitzetako zaintza indartzeko beharra adierazi dute. Oso gertu dago pentsio-sistema bideragarri bati eustea (% 29,43), eta, ondoren, adinekoei osasun-arreta egokia bermatzea (% 19,86).

Nahi gabeko bakardadeak (% 7,62) eta hiri-ingurunea egokitzeak (% 6,74) erantzunen ehuneko txikiagoa jaso dute. Oro har, emaitzek erakusten dute zahartzea ongizate-sistemak gero eta zahartuagoa den biztanleriari zaintza, pentsio eta osasun-arreta nahikoak bermatzeko duen gaitasunarekin lotutako erronka gisa hautematen dela nagusiki.

## ADINEKO ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONENGAN PENTSATUTA, ZEIN ALDERDI IRUDITZEN ZAIZU GARRANTZITSUENA HAIEN ETORKIZUNEKO ONGIZATERAKO?




Pentsio duinak eta nahikoak dira adinekoen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etorkizuneko ongizatea bermatzeko alderdirik garrantzitsuena, parte-hartzaileen % 34,31k adierazi dutenez. Ondoren, laguntza-sareak eta gizarte-programak (% 27,29) eta egokitutako osasun-zerbitzuak (% 20,66) daude.

Etxebizitza egoki eta irisgarriak (% 9,75) eta komunitatean aktiboki parte hartzeak (% 6,43) pisu txikiagoa dute. Oro har, emaitzek erakusten dute adinekoen ongizatea batez ere segurtasun ekonomikoarekin, gizarte-laguntzarekin eta haien beharretara egokitutako osasun-arretarekin lotzen dela.

## NOLA USTE DUZU BILAKATUKO DIRELA ENPLEGU AUKERAK GIPUZKOAN DATOZEN URTEETAN?




Enpleguaren bilakaerari buruzko itxaropenek ikuspegi zuhurra eta zertxobait ezkorra erakusten dute. Gehien adierazitako aukeretako bat da lan-aukerak bere horretan mantenduko direla (% 38,01); beste % 38,01ek, berriz, zertxobait edo nabarmen okerrera egingo dutela uste dute. Horren aurrean, % 23,98k hobekuntza aurreikusten dute.

Oro har, emaitzek erakusten dute lan-aukerak hazteko itxaropen txikia dagoela: egonkortasun- edo okertze-aurreikuspenak dira nagusi, eta parte-hartzaileen laurdenak baino gutxiagok uste dute enpleguak bilakaera ona izango duela datozen urteetan.

## ZURE USTEZ, ZEIN FAKTORE DA GARRANTZITSUENA ETORKIZUNEAN GIPUZKOAKO EKONOMIA INDARTZEKO??




Tokiko industria indartzea da Gipuzkoako ekonomia sustatzeko lehentasun nagusia, parte-hartzaileen % 30,94k adierazi dutenez. Ondoren, berrikuntza eta teknologia sustatzea (% 24,31) eta lanbide-prestakuntza eta -gaikuntza hobetzea (% 21,18) daude; tokiko ekintzailetzari laguntzea, berriz, % 18,23ra iristen da.

Aitzitik, turismo jasangarriak oso pisu txikia du (% 1,29). Oro har, emaitzek erakusten dute industriaren, berrikuntzaren, lanbide-kualifikazioaren eta ekintzailetzaren gainean oinarritutako eredu ekonomiko baten aldeko apustua egiten dela nagusiki. Turismoak, berriz, bigarren mailako tokia du lurraldeko ekonomia indartzeko bide gisa.

## ZEIN DA ZURE EGUNGO ETXEBIZITZA EGOERA?




Jabetzako etxebizitza da, alde handiz, parte-hartzaileen artean nagusi den bizitegi-egoera. % 44,04k erabat ordaindutako jabetzako etxebizitza dute, eta % 29,42k, berriz, hipoteka duen jabetzako etxebizitza; hortaz, % 73,46 bi egoera horietako batean daude. Bestalde, % 15,00 alokairuko etxebizitza batean bizi dira.

Emaitza horiek interpretatzerakoan, garrantzitsua da laginaren profil soziodemografikoa kontuan hartzea. Parte-hartzaileen ehuneko handi bat 46 eta 65 urte bitartekoa izateak (% 64,45), prestakuntza-maila ertain-altuarekin eta landunen gehiengoarekin batera, potentzialki egonkortasun ekonomiko eta bizitegi-egonkortasun handiagoarekin lotutako profila osatzen du. Horregatik, jabetzak duen pisu handia ezaugarri horien arabera testuinguruan kokatu behar da, eta ezin da zuzenean Gipuzkoako biztanleria osora estrapolatu, bereziki adin txikiagoko taldeetara.

Bestelako bizitegi-egoerek askoz pisu txikiagoa dute: % 5,77 senideek edo beste pertsona batzuek lagatako etxebizitza batean bizi dira, eta % 2,88 etxebizitza babestu edo sozial batean. Gainera, erantzun irekiek bizitegi-kalteberatasun edo -ezegonkortasun handiagoko zenbait egoera identifikatzea ahalbidetzen dute; esaterako, emantzipatzeko zailtasunen ondorioz senideekin bizitzea, alokairua partekatzea edo etxegabetze-egoerak.

Oro har, emaitzek itxurazko dualtasuna erakusten dute: alde batetik, laginaren barruan bizitegi-egonkortasun handia dago; bestetik, etorkizunari begira, kezka handia dago etxebizitza eskuratzeko aukeren inguruan. Kontraste hori, neurri batean behintzat, parte-hartzaileen adin-osaerarekin lotuta egon daiteke, eta iradokitzen du etxebizitzaren inguruko kezkak norbanakoaren bizitegi-egoera gainditzen duela eta Gipuzkoaren etorkizunerako erronka zabalago gisa hautematen dela.

## ZURE EGOERA IDEALARI DAGOKIONEZ, ETXEBIZITZA ESKURATZEKO ZEIN AUKERA NAHIAGOKO ZENUKE?




Etxebizitza erostea da, alde handiz, parte-hartzaileek gehien nahi duten bizitegi-aukera, % 63,74k hautatu baitute. Tarte handira daude bestelako formulak, hala nola kooperatibak edo erabilera-lagapena (% 16,60); % 9,54k soilik adierazi dute alokairua aukera ideal gisa. % 10,11ri berdin zaizkie aukera desberdinak.

Beraz, emaitzek jabetzako etxebizitzaren aldeko lehentasun oso errotua erakusten dute, laginean ikusitako jabeen pisu handiarekin bat datorrena. Hala ere, azpimarratzekoa da bestelako formulek alokairua gainditzen dutela nahiago den aukera gisa. Horrek nolabaiteko interesa erakusten du ohiko erosketaz zein alokairuaz bestelakoak diren etxebizitza eskuratzeko ereduekiko.

## ZURE UDALERRIKO EDO KOMUNITATEKO KIDE AKTIBO SENTITZEN ZARA?




Komunitateko kide aktibo izatearen sentimenduak banaketa nahiko orekatua du. % 39,62k adierazi dute beren udalerriko kide aktibo sentitzen direla neurri handi edo nahikoan; % 33,64k, berriz, inplikazio txikia edo batere inplikaziorik ez dutela adierazi dute. Bestalde, % 26,73 tarteko jarrera batean kokatu dira.

Oro har, emaitzek komunitatearekiko lotura ertaina erakusten dute, eta parte-hartze edo kidetasun aktiboa adierazten dutenak zertxobait gehiago dira. Hala ere, lotura txikiko erantzunen pisu esanguratsuak agerian uzten du herritarren parte-hartzea eta gertueneko ingurunearekiko lotura indartzeko tartea dagoela.

## ZURE USTEZ, ZENBATERAINOKO GARRANTZIA DU HERRITARREN, ENPRESEN, GIZARTE-ERAKUNDEEN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZAK ETORKIZUNEKO ERRONKEI AURRE EGITEKO?




Adostasun zabala dago lurraldeko eragileen arteko lankidetzaren garrantziari buruz. % 56,70ek oso garrantzitsutzat jotzen dute, eta % 27,34k, nahiko garrantzitsutzat; beraz, % 84,04k garrantzi handia ematen diote.

Aldiz, % 7,16k soilik uste dute lankidetza hori garrantzi gutxikoa edo batere garrantzirik gabekoa dela. Hortaz, emaitzek erakusten dute oso zabalduta dagoela Gipuzkoaren etorkizuneko erronkei aurre egiteko herritarren, enpresa-sarearen, gizarte-erakundeen eta erakundeen arteko erantzun bateratua eta koordinatua behar delako pertzepzioa.

## ETORKIZUNEKO BELAUNALDIEI BEGIRA, ZURE USTEZ, ZER DA GARRANTZITSUENA GIPUZKOAN INDARTZEA? (AUKERATU GEHIENEZ 3 AUKERA)




Bizi-kalitatea eta zerbitzu publikoak dira etorkizuneko belaunaldiei begirako lehentasun nagusia, parte-hartzaileen % 79,14k adierazi baitituzte. Ondoren, euskara eta kultura-ondarea (% 42,09) eta gizarte-kohesioa eta elkartasuna (% 41,34) daude; horien atzetik, berrikuntza eta sektore teknologikoa (% 36,31) eta aukera-berdintasuna (% 35,94).

Erantzun irekiek (% 6,33) etxebizitzarako sarbidea, enplegua eta soldatak, segurtasuna eta ekoizpen-sektore espezifikoentzako laguntza bezalako gaiak ere barne hartu zituzten. Oro har, emaitzek etorkizunari buruzko ikuspegi bat islatzen dute, non bizi-kalitatea eta zerbitzu publikoak zaintzeko borondatea bereziki nabarmentzen den, gizarte-kohesioa, kultura-identitatea eta belaunaldi berrien garapen-aukerak indartzearekin batera.

## NOLA IMAJINATZEN DUZU GIPUZKOA 2035EAN?




2035eko Gipuzkoari buruzko ikuspegia neurri batean ezkorra da. Parte-hartzaileen % 44,48k uste dute lurraldea gaur egun baino zertxobait edo askoz okerrago egongo dela; % 29,53k, aldiz, zertxobait edo askoz hobeto egotea espero dute. Bestalde, % 25,98k uste dute egoera gaur egungoaren antzekoa izango dela.

Emaitza horiek inkestan zehar ikusitako joera indartzen dute: kezka nabarmena dago Gipuzkoaren etorkizuneko bilakaeraren aurrean, nahiz eta gehiengoaren ikuspegia ez den oso negatiboa. Hobekuntza-itxaropenen gainetik, nolabaiteko okertzea aurreikusten dutenak dira nagusi; horrek datozen urteetako erronken aurrean ziurgabetasun-pertzepzioa dagoela agerian uzten du.

## ZEIN USTE DUZU IZAN BEHARKO LITZATEKEELA GIPUZKOAREN LEHENTASUN NAGUSIA 2035ERAKO?

Galdera irekiak 335 erantzun jaso zituen, eta horietan askotariko lehentasunak ageri dira. Hala ere, azterketa tematikoak erakusten du etxebizitza dela, alde handiz, gai nagusia: 157 erantzunetan aipatu da, gainerako gaien oso gainetik. Aipamenak bereziki etxebizitza eskuragarria lortzean, etxebizitza publikoan, alokairuan, gazteen emantzipazioan eta higiezinen espekulazioa murriztean oinarritzen dira.

Ondoren, enplegua, soldatak eta lan-baldintzak; osasuna; euskara, kultura eta identitatea; eta zerbitzu publikoen eta gizarte-ongizatearen indartzea nabarmentzen dira. Halaber, presentzia esanguratsua dute gazteriarekin, zaintzarekin eta pentsioekin, industriarekin eta garapen ekonomikoarekin, segurtasunarekin, hezkuntzarekin, berdintasunarekin eta gizarte-kohesioarekin lotutako gaiek. Hortaz, erantzunek erakusten dute 2035era begirako lehentasunak, funtsean, bizi-baldintza egokiak bermatzean eta ongizatearen zutabe nagusiak zaintzean oinarritzen direla, kultura-, ekonomia- eta demografia-arloko kezkekin eta bizikidetzari buruzkoekin batera.

| Identifikatutako gaia | Agertzen den aldien kopurua |
|---|---|
| Etxebizitza eta etxebizitzarako sarbidea | 157 |
| Enplegua, soldata eta lan-baldintzak | 69 |
| Osasungintza eta osasun publikoa | 62 |
| Euskara, kultura eta identitatea | 58 |
| Zerbitzu publikoak, ongizatea eta gizarte-babesa | 52 |
| Gobernantza, politika eta kudeaketa publikoa | 44 |
| Gazteria, jaiotza-tasa eta familientzako laguntza | 40 |
| Adinekoak, zaintzak eta pentsioak | 31 |
| Ekonomia, industria eta ekoizpen-sarea | 30 |

| | |
|---|---|
| Segurtasuna eta delinkuentzia | 26 |
| Hezkuntza eta prestakuntza | 25 |
| Berdintasuna, gizarte-kohesioa eta bizikidetza | 25 |
| Immigrazioa eta integrazioa | 22 |
| Ingurumena, klima eta iraunkortasuna | 19 |
| Turismoa eta lurralde-eredua | 16 |
| Berrikuntza, teknologia eta adimen artifiziala | 12 |
| Herritarren partaidetza eta komunitatea | 10 |
| Azpiegiturak eta mugikortasuna | 5 |
| Burujabetza eta independentzia | 4 |

**Ohar metodologikoa:** taulak gaikako aipamenak zenbatzen ditu, ez erantzun baztertzaileak. Pertsona berak hainbat lehentasun adieraz zitzakeen bere erantzunean —adibidez, etxebizitza, enplegua eta osasuna—; beraz, erantzun bera kategoria batean baino gehiagotan zenbatuta egon daiteke, eta aipamenen baturak jasotako 335 erantzunak gainditzen ditu. Sailkapenak gai beraren barruan biltzen ditu gaztelaniaz eta euskaraz emandako esanahi bereko adierazpenak.

# 04

# JOERA NAGUSIAK BARRUTIEN ARTEAN

## 4.1. PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOAK

Oro har, aztertutako lau barrutiek (Bidasoa-Oiartzun, Deba-Urola, Donostialdea eta Oria) profil soziodemografiko nahiko antzekoak dituzte. Guztietan, lanean ari diren pertsonak, adin ertaineko eta nagusiko pertsonak —bereziki 46 eta 65 urte bitartekoak — eta emakumeen parte-hartzea dira nagusi. Gazteen presentzia txikia da lau eremuetan. Era berean, prestakuntza-maila ertain eta altuak dira nagusi, baita egoera ekonomikoari buruzko pertzepzio oro har egonkorra ere, lurraldeen artean zenbait ñabardura badaude ere.

**Alderdi nagusiak barrutiaren arabera:**

- **Donostialdea:** Landunen presentzia handia duen profila du: % 60,8 lanean ari dira; hala ere, erretiratutako biztanleen pisua ere esanguratsua da (% 29,6). Lagina bereziki 56 eta 65 urte bitartekoen (% 37,2) eta 46 eta 55 urte bitartekoen (% 25,5) artean biltzen da; 36 urtetik beherakoek, berriz, presentzia txikia dute. Prestakuntza-maila handia ere nabarmentzen da, % 60,6k unibertsitate-gradua, masterra edo doktoretza baitute. Emakumeen parte-hartzea bereziki handia da (% 61,7). Egoera ekonomikoari dagokionez, % 55,0k adierazi dute hilaren amaierara arazorik gabe edo oso lasai iristen direla; % 36,3k, aldiz, ez direla iristen edo oso estu iristen direla. Horrek egoera ekonomiko nagusiki egonkorra erakusten du, nahiz eta egoera estuagoan dauden etxeen multzoa ere esanguratsua den.

- **Bidasoa-Oiartzun:** Batez ere biztanleria aktiboaren profila du: % 63,0 lanean ari dira eta % 24,0 erretiratuta daude. Presentzia handiena duen adin-tartea 56 eta 65 urte bitartekoa da (% 41,4), eta, ondoren, 46 eta 55 urte bitartekoa (% 22,2); 36 urtetik beherakoek, berriz, % 7,1 baino ez dute osatzen. Prestakuntzaren arloan, Lanbide Heziketaren pisua nabarmentzen da bereziki (% 34,4), gainerako barrutietan ikusitakoa baino handiagoa baita. Emakumeek generoari buruzko baliozko erantzunen % 55,1 osatzen dute. Egoera ekonomikoari dagokionez, % 54,6k adierazi dute hilaren amaierara arazorik gabe edo lasai iristen direla; % 32,0k, berriz, ez direla iristen edo oso estu eta murrizketekin iristen direla. Gainera, % 13,4k nahiago izan dute galdera horri ez erantzun.

- **Deba-Urola:** Lau barrutietatik, lanean ari diren pertsonen proportziorik handiena du (% 68,3); erretiratutako biztanleak, berriz, % 20,0 dira. Lagina bereziki 46 eta 55 urte bitartekoen (% 35,8) eta 56 eta 65 urte bitartekoen (% 33,3) artean biltzen da; bi taldeek, batera, hamar erantzunetik ia zazpi osatzen dituzte.

Prestakuntza-mailagatik ere nabarmentzen da: % 64,6k unibertsitateko edo graduondoko ikasketak dituzte, aztertutako barrutien artean ehunekorik handiena. Egoera ekonomikoari dagokionez, % 60,5ek adierazi dute hilaren amaierara arazorik gabe edo oso lasai iristen direla; % 31,9k, aldiz, oso estu iristen direla edo ez direla iristen adierazi dute. Alderatuta, egoera ekonomikoari buruzko pertzepziorik onenetakoa duen barrutietako bat da.

- **Oria:** Profil zertxobait zahartuagoa eta landunen presentzia erlatibo txikiagoa ditu. % 62,3 lanean ari dira, eta % 27,3 erretiratuta daude. Parte-hartzea 46 eta 55 urte bitartekoen (% 35,1) eta 56 eta 65 urte bitartekoen (% 29,9) artean biltzen da, eta ez da erantzunik jaso 18 eta 25 urte bitartekoen taldean. Hezkuntzaren ikuspegitik, Lanbide Heziketara bideratuago dagoen profila du (% 30,9), eta unibertsitateko eta graduondoko ikasketen presentzia txikiagoa da Donostialdean eta Deba-Urolan baino. Egoera ekonomikoari dagokionez, % 51,3k adierazi dute hilaren amaierara arazorik gabe edo lasai iristen direla; % 35,5ek, berriz, oso estu iristen direla edo ez direla iristen.

Oro har, barrutien arteko aldeak intentsitateari dagozkio, profilari baino gehiago. Lagina batez ere adin ertaineko eta lan-jardunean dagoen biztanleriak osatzen du, eta emakumeak dira nagusi. Deba-Urola landunen presentzia handiagatik eta goi-mailako ikasketen pisuagatik nabarmentzen da; Donostialdeak ere prestakuntza-maila handiko profila eta emakumeen parte-hartzerik handiena ditu. Bidasoa-Oiartzun Lanbide Heziketaren pisuagatik nabarmentzen da, eta Oriak profil zertxobait zahartuagoa eta goi-mailako ikasketen presentzia txikiagoa ditu. Egoera ekonomikoari dagokionez, lau barrutiek egoera nagusiki egonkorra erakusten dute; hala ere, guztietan dago hilaren amaierara murrizketekin edo zailtasunekin iristen dela adierazi duen etxeen multzo esanguratsu bat.

## 4.2. GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Oro har, lau barrutiek ikuspegi zuhur eta nahiko neurritsua dute Gipuzkoaren etorkizunari buruz. Ez da ezkortasun orokorreko egoerarik ikusten, baina itxaropenak ere ez dira argi eta garbi baikorrak: lurralde guztietan, erantzunak jarrera positiboen, tartekoen eta negatiboen artean banatzen dira. Aldi berean, nahiko zeharkakoa da hurrengo hamarkadako erronka nagusiak zein izango diren azaltzen duen pertzepzioa; bereziki nabarmentzen dira etxebizitza eskuratzeko aukerak, biztanleriaren zahartzea, zerbitzu publikoen jasangarritasuna eta bizi-kalitatea.

**Alderdi nagusiak barrutiaren arabera:**

- **Donostialdea:** Etorkizunari buruzko pertzepzio nahiko orekatua du, jarrera negatiboetarako joera txiki batekin. % 35,6k uste dute Gipuzkoaren etorkizuna positiboa izango dela datozen hamar urteetan; % 39,1ek, aldiz, modu negatiboan ikusten dute. Lurraldeak aldaketei aurre egiteko duen gaitasunarekiko konfiantza batez ere tarteko mailetan biltzen da (% 39,2). Konfiantza handiko edo oso handiko balorazioek (% 33,2) zertxobait gainditzen dituzte konfiantza txikiko edo oso txikiko balorazioak (% 27,6). Kezken artean, etxebizitza eskuratzeko aukera nabarmentzen da argi eta garbi (% 52,3), eta, ondoren, zerbitzu publikoen kalitatea (% 34,6), pentsioen jasangarritasuna (% 28,7) eta bizi-kostua (% 27,5). Era berean, biztanleriaren zahartzea (% 61,9) eta klima-aldaketa (% 42,0) identifikatu dira hurrengo hamarkadan Gipuzkoan eragiteko gaitasun handiena izango duten aldaketa gisa.

- **Bidasoa-Oiartzun:** Etorkizuneko bilakaerari buruzko ikuspegirik kritikoenetakoa duen barrutietako bat da. % 41,8k uste dute etorkizuna nahiko edo oso negatiboa izango dela; % 31,6k, berriz, itxaropen positiboa dute. Gipuzkoak aldaketei aurre egiteko duen gaitasunarekiko konfiantza ere nahiko neurritsua da: % 39,8k tarteko konfiantza adierazi dute, eta % 28,6k, konfiantza txikia edo oso txikia. Etxebizitzak protagonismo bereziki handia du barruti honetan (% 57,0); ondoren, zerbitzu publikoen kalitatea (% 35,0) eta pentsioak (% 30,0) daude. Aurreikusitako aldaketa handiei dagokienez, berriro ere biztanleriaren zahartzea (% 58,6) eta klima- eta ingurumen-aldaketa (% 44,8) dira nagusi.

- **Deba-Urola:** Ikuspegi zuhurra du honek ere: balorazio negatiboak % 39,2 dira, eta positiboak, berriz, % 35,8. Gipuzkoak aldaketei aurre egiteko duen gaitasunarekiko konfiantza batez ere tarteko mailan kokatzen da (% 38,1); konfiantza txikia edo oso txikia dutenen ehunekoak (% 32,2) zertxobait gainditzen du konfiantza handia edo oso handia dutenena (% 29,7). Etxebizitza eskuratzeko aukera da berriro ere gehien aipatutako kezka (% 47,5), nahiz eta beste barruti batzuetan baino intentsitate txikiagoa izan; zerbitzu publikoen kalitatea, berriz, % 35,6ra iristen da. Bereziki nabarmentzen da biztanleriaren zahartzea etorkizuneko eraldaketa nagusi gisa hautematea (% 65,1), eta, horrekin batera, klima-aldaketa (% 46,2).

- **Oria:** Besteekin alderatuta, etorkizunari buruzko pertzepziorik onena eta konfiantzarik handiena duen barrutia da. Itxaropen positiboak % 39,0ra iristen dira; balorazio negatiboak, berriz, % 36,4 dira. Gainera, % 42,7k konfiantza handia edo oso handia dute Gipuzkoak aldaketei aurre egiteko duen gaitasunean, konfiantza txikia edo oso txikia adierazten dutenen % 21,3aren oso gainetik. Konfiantza handiagoa izan arren, etxebizitza eskuratzeko aukerari buruzko kezka bereziki handia da (% 59,7), lau barrutietako ehunekorik handiena; ondoren, bizi-kostua (% 36,4) eta zerbitzu publikoen kalitatea (% 32,5) daude. Deba-Urolan bezala, biztanleriaren zahartzeak indar handia du (% 64,7), eta, ondoren, klima-aldaketa eta ingurumena daude (% 47,1).

Oro har, emaitzek erakusten dute etorkizuneko erronkei buruzko diagnostikoa nahiko partekatua dela lurraldeen artean, nahiz eta erronka horiei aurre egiteko konfiantza-mailan zenbait alde hauteman. Oriak ikuspegi nahiko baikorragoa eta konfiantza handiagoa du Gipuzkoaren erantzuteko gaitasunean; Bidasoa-Oiartzunek, berriz, pertzepzio zertxobait ezkorragoa du. Donostialdea eta Deba-Urola tarteko jarreretan kokatzen dira, eta itxaropen negatiboak dira zertxobait nagusi.

Alde horiek zuhurtziaz eta joera orientagarri gisa interpretatu behar dira, barruti bakoitzean izandako parte-hartze kopuru desberdina kontuan hartuta. Donostialdeak lurraldeari lotutako 240 erantzun biltzen ditu; Oriak, berriz, 78. Hortaz, lurraldeen pisua eta azterketaren oinarria ez dira baliokideak. Ondorioz, alderaketek ereduak eta lurralde bakoitzaren balizko berezitasunak identifikatzeko aukera ematen dute, baina ez dira alde erabakigarri gisa ulertu behar, eta ezin dira zuzenean estrapolatu barruti bakoitzeko biztanleria osora.

Ñabardura horiez harago, bat-etortze nabarmena ikusten da identifikatutako erronka nagusietan: etxebizitza eskuratzea zeharkako kezka gisa ageri da lau barrutietan, eta biztanleriaren zahartzea, berriz, datozen hamar urteetan Gipuzkoan eraginik handiena izango duela aurreikusten den egiturazko aldaketa gisa finkatzen da.

# 05

# ONDORIO OROKORRAK

Inkestaren emaitzek erakusten dute herritarrek positiboki baloratzen dutela Gipuzkoako egungo bizi-kalitatea, baina zuhurtzia handiagoz ikusten dutela haren etorkizuneko bilakaera. % 58,71k uste dute bizi-kalitatea ona edo oso ona dela; hala ere, begirada datozen urteetara zuzentzean, itxaropen negatiboak areagotu egiten dira. % 38,61ek nahiko bilakaera negatiboa edo oso negatiboa aurreikusten dute hurrengo hamarkadarako eta, zehazki 2035ean pentsatzean, % 44,48k gaur egun baino zertxobait edo askoz okerrago egongo den Gipuzkoa irudikatzen dute; % 29,53k, berriz, hobekuntza espero dute.

Orainaren balorazioaren eta etorkizuneko itxaropenen arteko alde hori da ikerketaren ondorio nagusietako bat. Ez da egungo egoera okertzen ari delako pertzepzio orokorturik ikusten; aitzitik, lortutako ongizate-mailak etorkizunean mantentzeko gaitasunari buruzko kezka dago. Ildo horretan, Gipuzkoak datozen aldaketei aurre egiteko duen gaitasunarekiko konfiantza tarteko jarreretan kokatzen da nagusiki: % 38,11k tarteko konfiantza adierazten dute, eta konfiantza handia edo oso handia dutenen ehunekoak (% 33,80) zertxobait gainditzen du konfiantza txikia edo oso txikia dutenena (% 28,09).

Identifikatutako erronken artean, etxebizitza nabarmentzen da inkestako kezkarik zeharkakoena delako. Datozen urteei begira kezka handiena sortzen duen alderdia da (% 55,23), baita gizarte-kohesioa eta bizikidetza indartzeko gehien aipatutako elementua ere (% 29,49). Etxebizitzaren garrantzia bereziki nabarmena da berriro ere Gipuzkoak 2035era begira dituen lehentasunei buruzko erantzun irekietan; izan ere, etxebizitza eskuragarria lortzeari, gazteen emantzipazioari, alokairuari eta etxebizitza publikoari buruzko aipamen ugari biltzen dituzte. Kezka hori bereziki esanguratsua da parte-hartzaile gehienak gaur egun jabetzako etxebizitza batean bizi direla kontuan hartuta. Horrek iradokitzen du arazoa norberaren bizitegi-egoeraz harago hautematen dela eta etorkizuneko belaunaldien aukeretara ere zabaltzen dela.

Biztanleriaren zahartzea da etorkizuneko diagnostikoaren bigarren ardatz nagusia. Hurrengo hamarkadan eragin handiena izango duela aurreikusten den aldaketa da (% 62,81), eta estu lotuta dago zaintzaren, pentsioen eta osasun-arretaren jasangarritasunarekin. Etxeko eta egoitzetako zaintza jotzen da zahartzeari lotutako erronka nagusitzat (% 33,87), eta, ondoren, pentsio-sistemaren bideragarritasuna (% 29,43). Gainera, % 57,17k konfiantza gutxi dute edo ez dute inolako konfiantzarik etorkizuneko belaunaldiek pentsio-sistema jasangarri eta nahikoa izan dezaten.

Emaitzek, halaber, zeregin nagusia ematen diete zerbitzu publikoei etorkizuneko ongizatearen berme gisa. Kalitatezko osasun-zerbitzu publikoa da herritarren ongizateari eusteko alderdirik garrantzitsuena (% 52,80), eta etorkizuneko belaunaldiei begira zer indartu beharko litzatekeen galdetzean, bizi-kalitateak eta zerbitzu publikoek % 79,14ko ehuneko handia lortzen dute. Horiekin batera, gizarte-kohesioa, euskara eta kultura-ondarea, berrikuntza eta aukera-berdintasuna ageri dira. Horrela, etorkizunari buruzko ikuspegi bat eratzen da, non ongizateari eusteak ekonomia- eta gizarte-dimentsioak lurralde-identitatearekin eta -kohesioarekin lotutako elementuekin uztartzen dituen.

Ekonomiaren eta lanaren arloan ere itxaropen zuhurrak dira nagusi. % 23,98k soilik uste dute enplegu-aukerak hobetu egingo direla datozen urteetan; % 38,01ek bere horretan mantenduko direla espero dute, eta beste % 38,01ek okerrera egingo dutela aurreikusten dute. Egoera horren aurrean, Gipuzkoako ekonomia indartzeko gehien aipatutako bideak tokiko industria (% 30,94), berrikuntza eta teknologia (% 24,31), lanbide-prestakuntza eta -gaikuntza (% 21,18) eta tokiko ekintzailetza (% 18,23) dira. Hortaz, emaitzek ekoizpen-sarea, kualifikazioa eta berrikuntza indartzean oinarritutako eredu ekonomikoaren aldeko lehentasuna erakusten dute.

Beste elementu esanguratsu bat lurraldeko eragileen arteko lankidetzari ematen zaion garrantzia da. % 84,04k nahiko edo oso garrantzitsutzat jotzen dute herritarren, enpresen, gizarte-erakundeen eta erakundeen arteko lankidetza etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Balorazio horrek erakusten du oso zabalduta dagoela identifikatutako erronkek erantzun koordinatuak behar dituztelako eta esparru bakar batetik soilik ezin direlako landu pertzepzioa.

Lurralde-ikuspegitik, ikusitako aldeak intentsitateari dagozkio nagusiki, eta ez norabideari. Lau barrutiek neurri handi batean bat egiten dute etorkizuneko erronka nagusiei buruzko diagnostikoan, bereziki etxebizitzari eta zahartzeari dagokienez. Hala ere, alderatuta, Oriak ikuspegi zertxobait baikorragoa eta konfiantza handiagoa du Gipuzkoaren erantzuteko gaitasunean; Bidasoa-Oiartzunek, berriz, pertzepzio kritikoagoa du. Donostialdea eta Deba-Urola tarteko jarreretan kokatzen dira. Alde horiek joera orientagarri gisa interpretatu behar dira, barruti bakoitzean jasotako parte-hartze kopuru desberdina eta laginaren izaera ez-probabilistikoa kontuan hartuta.

Oro har, inkestak erakusten du Gipuzkoak bere bizi-kalitatearen balorazio ona duela abiapuntu, baina etorkizunari ziurgabetasunez aurre egiten diola. Etxebizitzak, zahartzeak, pentsioek, zerbitzu publikoek eta ekonomia- eta lan-aukerek biltzen dituzte kezken zati handi bat. Aldi berean, herritarrek zaindu edo indartu beharreko elementutzat jotzen dituzte gizarte-kohesioa, euskara eta kultura, berrikuntza eta lankidetza.

Laburbilduz, emaitzek iradokitzen dute Gipuzkoaren etorkizunerako identifikatutako erronka nagusia ez dela soilik oparotasun-maila handiagoak lortzea, baizik eta datozen urteetako eraldaketen aurrean egungo ongizatearen jarraitutasuna eta egokitzapena bermatzea. Etxebizitza eskuragarria, zerbitzu publiko sendoak, zaintzaren eta pentsioen jasangarritasuna, ekonomia- eta lan-aukerak, gizarte-kohesioa eta identitatearen zaintza erronka beraren dimentsio gisa ageri dira: gaur egun positiboki baloratzen den bizi-kalitateari eustea eta etorkizuneko belaunaldiei helaraztea.

# GIPUZKOAREN ETORKIZUNARI BURUZKO INKESTA